

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsitako beste gai batzuk

*Irunberri eta Hezkuntzaren artean herriko LHko zentroan elkarbizitza hobetzeko akordioaren sinadura da nabarmentzekoa*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Hezkuntza eta Irunberriren artean elkarbizitza hobetzeko akordioa sinatzea onetsi da

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsi du Hezkuntza Departamentuak eta Irunberriko Udalak Irunberriko Lanbide Heziketarako Ikastetxe Politeknikoko elkarbizitza hobetzeko “Kanpo Lana” hitzarmena sinatzea.

Irunberriko ikastetxeak Nafarroako beste ikastetxe batzuetan ere ezarria dagoen ekimena abian jarri du. Egitasmo honen helburua da elkarbizitzarako aurkako jarrerengatik ikasgeletako kaleratzeak ordezkatzea, izan ere neurri horiek beti ez dute izaten ikasleen jarreran beharrezkoa den eraginik.

Aurkako jarrerak ematen diren kasuetan kaleratzeen ordezkariak erakitzailak proposatzen dira. Hala, bestelako giro batean bizikidetzaz lantzeko eta elkarlanerako aukera eskainiz. Modu horretara, ikasleek bestelako errealitate sozialak ezagutzeko aukera izaten dute eta hala beraien ardura garatzen da, beste esparru batzuetan ere baliogarriak izan daitezkeen trebeziak eskuratuz.

### Ugar (Yerri) eta Villafrancako herri-lurretan desafetakzioak egitea onartuta

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran bi akordio onetsi ditu zeinen arabera Ugar kontzejuko (Yerri) eta Villafrancako Udaleko herri-lurretan desafektazioak egitea onetsi den.

Ugarri dagokionean, herri-lurretako 9.500m<sup>2</sup> Yerriko Udalarari utziko zaizkio Allozko urtegiko inguruak atondu ditzan. Lagapen honen helburua natur eta eremu turistiko horretako aparkalekuko zonaldea antolatu eta arautzea da.

Villafrancan berriz, ‘La Dehesa’ eremuko herri-lurren 7.189m<sup>2</sup> partikular bati utziko zaizkio txerriak gizentzeko ustiategi batentzako. Lagapena 20 urtez izango da eta urtero 305,12 euro (gehi BEZ) ordaindu beharko ditu banakoak.